

EUSKARA. Apirilaren 4an Pirinio Atlantikoetako eta Landetako tren geltokietako zuzendaria Demoekin bildu zen

Erredakzioa | BAIONA

Apirilaren 4an, SNCF Frantziako Tren Konpainia Publikoko Pirinio Atlantikoetako eta Landetako zuzendari Pierre Bernard Trischler-ek bilkura egin zuen Demoekin, azken hauek eskaturik. Bilkuran SNCFko arduradunak argiki erran zien Demoei ez dela aldagetik egingo tren konpainiaren ibilmolde eta hizkuntza politikan, hau da, SNCFk ez duela sartuko euskara bere zerbitzuetan.

Trischler eta Demoak biltzen diren bigarren aldia da apirilaren 4koa. Lehen bilkura 2001eko apirilaren 22an egin zuten eta deus ez zen aldatu. Bigarren bilkura joan den martxoaren 16ko manifestazioan Demoek egin zioten eskariaren ondorioa da. Egun horretan 630 manifestarik —horien artean hainbat hautetsi eta euskalgintzako hainbat elkartetako kideak— euskara zerbitzu publikoetan ezartzeko eskaria egin zie-

SNCFk ez du erabiliko euskara zerbitzuetan

Soilik bi herriren izenak euskaratuko ditu, tokiko tren geltokiko plangintzen arabera

ten SNCF konpainiako buruzagiei eta Akitaniako Kontseiluko arduradunei. «SNCF konpainia moralki behartua da euskarari eta frantsesari tratamendu bera ematera», nabarmendu dute Demoek.

Demoek Trishlerri helarazi dioten aldarrikapen agirian ondoko zerbitzuak elebidun izan daitezela eskatu diote: tren txartelak, harrera —leihatilak, geltokiko zuzendaria, kontrolatzaileak—, tren ordutegi guziak

—eskualdekoak eta estatukoak—, iragarki guziak —eskualdekoak eta estatukoak—, erabiltzaileei zuzendu gutunak —diru itzultzeak eta abar—, beharpen txartelak, trenetako eta tren geltokietako bozgorailuetako mezuak, trenetako eta geltokietako seinaletika, minitel eta Internet zerbitzuak.

Kontuan harturik eskari guziak bat-batean gauzatzea ez dela aise, Demoek gutieneko lau aldarrikapen bete ditzan es-

katu diote SNCFri: Euskal Herriko tren geltokien seinaletika elebiduntzea, bozgorailuetako mezuak frantsesez eta euskaraz zabaltzea, harrera guneetan —leihatiletan— euskararen ahozko erabilpenaren garapenerako plan bat abiatzea eta eskualdeko tren ordutegien orriak bi hizkuntzetan argitaratzea.

Trischlerrek, aldiz, SNCFk hizkuntza politika ez duela aldatuko adierazi zien Demoei. Trishler jaunak erran zuen aldagetak tokian tokiko tren geltokien plangintzen arabera gauzatuiko direla, hots, m e n t o k o z Hendaia eta Getariako tren geltokietan soilik erabiliko dela herrien izena euskaraz emateko.

«Segur aski, lehen aldia da hainbertze tren erabiltzailek eskakizun zehatz bat egin diote-

la SNCFri», adierazi dute Demoek martxoaren 16an bildu manifestari kopurua gogoan.

«Gainera, argiki erran genion Trishlerri SNCFrendako ohore bat izan beharko litzatekela zerbitzu publikoetan euskara erabiliko duen lehena izatea», adierazi zuen Gorka Torrek Demoen izenean.

«Gutieneko lau aldarrikapen horiek gauzatzen ez diren bitartean, eskakizun horiek beharrezkoak direla esplikatzeko eta egingarriak direla erakusteko ekintzak egiten jarraituko dugula diogu argiki», esan zuten Demoen.

Bilkura berean, Trishlerrek jakinarazi zien Demoei tren geltokian egin duten ekintza bakoitzarengatik salaketa bat ezarri duela epaitegian.

SALAKETAK

SNCFk zazpi salaketa ezarri ditu Demoen kontra, tren geltokian egin ekintzengatik

HEZKUNTZA. Foru Aldundiak antolatzen du

Eskola Kirolean parte hartzen dute Gipuzkoako 40.000 gaztek

Erredakzioa | DONOSTIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen Eskola Kirola programan sei eta hamasei urte bitarteko 40.000 gaztek baino gehiagok parte hartzen dute. Programa horretarako 1.782.000 euro jarri ditu Aldundiak 2001-2002 ikasturterako.

«Gazteek kirola egiteko ohitura hartzea da» programaren helburua, Luis Bandres Gazteria eta Kirol diputatuak atzo adierazi zuenez. Helburu hori lortzeko, Gipuzkoako Foru Aldundia klub, federazio eta udalekin jarri da harremanetan.

Hala, 61 udalekin 52 hitzarmen sinatu ditu Aldundiak. Horiei esker, 523.000 euro banatuko ditu, eskola kirola kudeatzeko egiturak sortu eta garatzeko. Bestalde, eskola kiroleko programaren jardueretarako laguntza tekniko emateko 35 akordio sinatu ditu federazioekin. Horri esker, 746.000 euro jasoko dituzte.

Kirol diputatuak adierazi zuenez, programaren beste helburu bat kirol testuak ugaritzea da. Ildo horretan, Saskibaloia Federazioak saskibaloia irakaskuntza eta praktikari buruz egindako hiru eskuliburuak azpimarratu zituen.

Bestalde, Kote Olaizola Gazteria eta Kiroleko zuzendari nagusiak eskola programak es-

kaintzen dituen ekintzak azaldu zituen. Gazte guztiei zuzendutako jarduerak antolatzen ditu Foru Aldundiak. Besteak beste, lehiaketetan aritzeko 33 modalitate daude.

Errendimenduan aritzeko gaitasuna duten ikasleentzat hainbat jarduera eskaintzen ditu programak. Aurten, besteak beste, izotz gaineko irristatzea, izotz gaineko hockeya, iraupen eskia eta esku pilota dira berrikuntzak.

Ikastetxeetako diru laguntzak

Ikastetxeek ere zuzenean diru laguntzak jasotzen dituztela gogoratu zuen Olaizolak. Hala, lehiaketetan bidaia egiteko 144.000 euro banatuko dituzte, kirol materiala erosteko 78.000 euro eta igeriketa ikastaroetarako 20.000 euro.

Halaber, Foru Aldundiak diru laguntzak emango ditu eskola kirolari buruzko ikerketak egiteko —11.000 euro—, Kirolarte programaren bidezko prestakuntza jarduetarako —30.000 euro— eta zenbait erakunderi prestakuntza ikastaroak egiteko —21.000 euro—.

Azkenik, udalek eskola umeek igerian ikasteko antolatzen dituzten kanpainetarako 82.000 euro jarriko ditu Aldundiak. Uda 2002ko ekintzetarako 48.000, federazioetarako kirol materialerako 24.000 eta argitalpenetarako 34.000 euro.

Bilbon, zurekin dago Bilbogas



Edonora zoazela ere, Bilbon, gas naturalaren erosotasun guztia eskaintzen dizu **Bilbogasek**. Udala, Aldundia, Eusko Jaurlaritza, museoak, zineak, antzokiak, jatetxeak, ikastetxeak... Badira 10 urte milaka eta milaka bilbotarri beroa eta ongizatea eramaten diela. Gaur egun, gero eta pertsona, enpresa eta erakunde gehiagok dute konfiantza **Bilbogasen**.

Bilbon, zurekin dago Bilbogas.



BilboGas
CONFORT NATURAL